

EGUN BATZUK IGARATZA-N

POR S. GARMENDIA

(Conclusión)

Orain arte, Naparroa aldetik egin litezkean ibillaldien berri eman badegu, Gipuzkoaldetik egin litezkenen berri emango degu orain. Igaratza-tik gainbera goazela, ordu laurden bat barru, Beaskin-ko txaboletara iritxiko gera. Ordu laurden batean gutxi-gora bera. Lanberri, Xaxiain da Arriaran laxter agertuko zaizkigu, baita arrera ona egin ere. Edaririk edo puska legorrik nai izan ezker, oiek aukeratuko dizkigute azkar ta ondo. Ortik orduerdi bat barru, eta beraka beti, Doniturrieta deritzaion sarobean gaude. Sei bat txabola denea. Artzaiak, pamili ta guzi etortzen dira udaldian. Toki zoragarria. Lizarrak pillaka ta itzala bikaiña; iturri gozo bat ere badu. Jo beraldea, eta bideari jarraituaz, Eskizubarene-ko txabolak datozkigu. Ekin bideari, eta ordu laurden bat barru, Enerio-ko guarda-etxe erre ezkerre utzirik, Bai-arratera iritxiko gera. Sastarri mendi begien aurrean. Ba-du bere nekea, tontorrera iristek. Izan ere, Otso-pasaje gañera iritxi ondoren, sastraka ta bide kaxkarra baidago. Ala ere, mezei du bein bederen, arañño igotzeak. Bide beretik etxeratu.

Ganbora degu beste ibillaldi politta. Igaratza-ko Peri-lekua eskubira utz, Igaratza deritzaion zelaia pasa alde batetik bestera, eta izen bereko arratera irixten geranean, eta ezkerretik bide txiurrari jarraituaz, Ontzanburu-ko lareetara iritxiko gera. Belatxinga-lei-

zea eskubira degularik, aldapa bat lantz igo, eta berealaxen gera xenda-zelai batean. Pandarri muturra bertantxegutu; ara irixtea ezta gauza zailla. Gogoak emango baligu, segi aurrera, eta laxter gera ordeka eder batean. Eta emendik Ganbo-ra. Bular auspo onak bear dira, ezpaita nolabaiteko aldapa. Ikuspegi bikaiña andik dagona. Bai Aralar ikusteko, eta baita ere Gipuzkoa ikusteko. Gure aurrean, ogei minutura, Ganbo-txiki daukagu, eta ezkerregera Uarrain muturra. Etxerakoan, ego aldera jetxi, artu xenda-zelai bat Ontzanburu-ko arraterañño, eta au bein igaro ezkerrez, zelai-zelai etorriko gera Igaratzara, Doniturrieta gaikoa eta Beaskain-go txabolak gure bein ditugula.

Txindoki-ra ere egin diteke ibillaldi eder bikaiñ bat. Luze xamarra izatea! Bañan, egokia ta ederra. Ontzanburu-ko arratera jo, Ganboti-k ekarri degun bide txiorra jarrai, bañan Ganbo-ra joan bearrean, jo zagun Ganbo ta Uarrain artean dagoan ordepara. Irazusta-lepoa» deritzaio. Urruti antxean, ikus diteke emendik Txindoki tontorra. Jo zagun eskudi aldetik, eta bide-txiorez, gainbera ia beti, Etize-ko txaboletara elduko gera. Auspo onak bear dira emendik gallurrerañño joateko. Bein Txindoki tontorrean, a zer nolako ikuspegia. Besterik ederragorik nekez billatuko da Gipuzkoa guzian. Larraitz ta Amezketa gure azpian; Abalzisketa ta Orendain urrutixegutu. Tolosa urru-

tiago. Billafranka, Zaldibi ta Beasain beste aldetik. Ormaiztegi-ko zubia. Zenbat eta zenbat mendi! Eztago Prantzin! Trenen bat jarria zuten tontorreraño! Ainbeste edertasunekin begiok ase ditzagunean, uztagun tontorra eta jo zangun beko txaboletara. Aizkorri aldera abittu, eta txaboletatik ordu erdia baño lenago, lurtean dagoan saitarria iritxiko gera. Arri onen gañean, zenbat ipurdiko artu ote dituzte gure artzaiak! Arri ori, luzaro guzian, nork pasatu ibiltzen baitira. Gure eskubian dagoan mendi tontorrean, bee-aldean, Kilixketa-ko koba zulo zoragarria dago. Goazen goruntz, ego aldera, eta berealaxen gaude Alotzako iturrian. Ur preskoa benetan emengoa. Beti ere goruntz, la x t e r gera Irazusta-lepoan. Goazen eskubitik gain-bera eta Pagabe-ko txaboletan gera. Txabola asko dira emen. Antonino Sukiak emango digu guzien berri. Beraxeago, Arrate-beltz, eta bertan Manuel Oiarbide artzai jatorra ta zintzoa. Urrutiago, eskudi aldera, Kutixao-ko txabola. Bi ziran lenago, baño errerik dago bat orain. Arrate-beltz ingurutik Igaratza aldera goazela, ezkerretara Basolo-ko koba dago; guretzat baño, lurpe-miatzalle edo espeleologo oientzat ohea. Jarrai bideari eta Doniturrieta goiko txabolak, eskubira, azpian utzirik, berealaxen elduko gera Beaskin-dik barrera Igaratzara.

Beste ibilladi bat, luzea baño oso ederra, Balerdi edo Mallo-zarreko gaña degu. Errefugiotik erten da Amezketara dihoan bidea artu. Igaratzako zelaia ta arratea pasa ondoren, gainbera asiko gera. Geroxeago, Andra Maria-ren irudia dator kigu. «Orra or arri gañean, Ama Birgiñaren oin arrastoa», gure aurrekoengandik bein baño geiagetan entzuna. Bertatik pasatzekoan Agur Maria bat errezatzeko oiturea

dago. Txanpon batzu ere utzi, artzaiaren batek artu eta Amezketako erretorai edo ta Arantzazu-ko pralle kas-ka zuriari meza bat ateratzeko eman dizaion. Leenago etzagoan Andra Mariaren irudirik. Gaurregun bai. Kaletarren batek jarria da nunbait! Emendik berealaxen degu Pardeluz iturria. Eskubi aldetik, bide txiurrari jarrai eta ogei minutu barru Latosa-ko txaboletan gaude. Latosa-ko txabol inguru au ikusgarria da. Badirudi denbora bateko jentillen bizi-lekua dala. Ala ere eztegu jentillik ikusi, baño bai oien orde, Amezketako ta Bedaio-ko artzai jatorrak. Emendik gora, Oakoarri-ko tontorra eskubira degula. Astunaldeko ordekarata aterako gera. Oneaxen dator Uztegi-ko mallo-bidea. Astunalde-ko gora, alanbre mugari jarraituki, Artubi-ko tontorrera iritxiko gera. Uztegi, Aralar mendi ta Ta Bedaio-ko mugarria dezute. Eta Bedaio Tolosa-n auzoa dan ez, au du Tolosa-k tontorrik aundiena. Jo emendik Azkarate aldera, eta bi aldetara malda ikusgarriak ditugula, bide extu bat igaro eta Balerdi edo Mallo-zarren gañera iritxiko gera. Azkarate, Bedaio, Atallo, Betelu, Arribe eta beste zenbait lurralde eder-zoragarriak gure oinpean dauzkagu. Aralar aldera begiratu eta Malloa ikusiko degu, mendi tontor aundiak ingurun. Oakoarri, Eliskaitzarri, Beoin, Aladaon, Torreanea, ta abar. Ederki egoten da emen, baño orduak ere aurrera ta, exaldera jo bearra dago. Eta bide beretik goazen Astunalde-ra, eta ondorean Oakoarri-ko tontorrera igo. Eliskaitzarri igo geroxeago. Oako ordeka pasa ondoren, Beoin tontorrera igo. Egurbide tartea dator gero, mendi tontorrak alde batera utzi, eta jo Labeongo punta aldera. Igaratza zelaiera jetxi ta berealaxen degu errefujioa.